

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	MAKINAK ETA INSTALAZIOAK HARAGI-PRODUKTUAK LANTZEAN	Iraupena	50
		Berariazkoa	
Kodea	UF0830		
Lanbide-arloa	ELIKAGAIEN INDUSTRIAK		
Lanbide-eremua	Harakintza		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Harakintza	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Oliba-olioak ateratzeko prozesuko eragiketak	Iraupena	120
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Haragi-produktuak lantzeko eragiketen kontrola	Iraupena	70

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0766_3 HARAGI-PRODUKTUEN ETA -PRESTAKINEN LANKETA ETA HORIEN PRODUKZIO-SISTEMA AUTOMATIKOAK KONTROLATZEA, BAITA ANIMALIEN HILKETA, PRESTAKETA ETA ZATIKETA ERE gaitasun-ataleko LB2, LB3, LB8 eta LB9 lanbide-burutzapenekin.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Produkzio-ekipamenduen eta -makinen funtzionamendua eta premiak deskribatzea, eta lehen mailako mantentze-eragiketak gainbegiratzea.

- EI1.1 Haragi-produktuak eta -prestakinak lantzean eta ontziratzean erabilitako makina- eta ekipamendu-mota desberdinak sailkatzea horien funtzionamendua arautzen duten oinarriko printzipioen eta elementuen arabera.
- EI1.2 Haragi-industrian erabilitako makina- eta ekipamendu-mota orokorren funtsezko osaera deskribatzea.
- EI1.3 Makinen eta ekipamenduen osagaien artean bereiztea zeintzuk diren ohizko mantentze-lanak behar dituztenak edo zeintzuk aldizkako ordezkatzeko behar dutenak.
- EI1.4 Mantentze- eta konponketa-lantzat jo daitezkeen eragiketak bereiztea, eta, horien barruan, lehen mailako gisa sailkatzen direnak.
- EI1.5 Makina eta ekipamendu erabilgarrien erabilera- eta mantentze-argibideak interpretatzea, eta horien funtzionamendua kontrolatzeko behar beharreko dokumentazioa eta datuak ezagutzea.
- EI1.6 Lehen mailako mantentze-eragiketetan erabilitako erremintak eta lanabesak identifikatzea eta maneiatzea.
- EI1.7 Makina eta ekipamendu adierazgarrienak erabiltzen direnean gehien agertzen diren anomaliak eta horien sintomak deskribatzea, betiere zuzenduak izateko zerbitzu espezializatuen esku-hartzea behar dutenak bereiziz.
- EI1.8 Ekipamendu edo makina erabilgarrirei edo xehetasunez deskribatutakoei buruz, edo horien osagaiei buruz, behar bezala zehaztutako kasu praktikoko batean:
 - Erabiliko diren ekipamenduak eta makinak, horien aplikazioak eta funtzionamendua deskribatzea.
 - Lehen mailako mantentze-premiak ezagutzea.
 - Mantentze-eragiketak gauzatzeko erreminta edo material egokienak hautatzea.
 - Lehen mailakotzat har daitezkeen eragiketa desberdinak azaltzea eta egitea, dagokion mantentze-egutegian aurreikusiak.
 - Hala badagokio, esku-hartzearen ondoren, bidezko funtzionamendu-egiaztapenak egitea.

A2: Makinen eta prozesuen ur-, aire-, hotz-, bero- eta elektrizitate-eskakizunak zehaztea, eta horien hornidura ziurtatzen duten zerbitzu osagarrien operatibitatea eta mantentze-lanak gainbegiratzea.

- EI2.1 Beroa, airea eta hotza produzitzeko, ura tratatzeko eta eroateko, potentzia mekanikoa transmititzeko, eta energia elektrikoa banatzeko eta erabiltzeko sistemen eta ekipamenduen funtzionamendua eta ahalmenak deskribatzea.
- EI2.2 Zerbitzu osagarrien aplikazio desberdinak lotzea instalazio bateko elaborazio-prozesuen eta makinak eskakizunekin.
- EI2.3 Produkzio-ekipamenduen premiak eta kontsumoak erlazionatzea zerbitzu osagarrien ahalmenekin, eta arrazionalizazio-neurriak ondorioztatzea horien erabileran, baliabide energetikoak nahiz hidrikoak optimizatuz.
- EI2.4 Zerbitzu orokorrak eta osagarriak erabiltzeko segurtasun-gailuak eta -neurriak identifikatzea.
- EI2.5 Zerbitzu osagarrietan bildutako ekipamenduen erabiltzaile-mailako mantentze-eragiketak ezagutzea eta egitea.
- EI2.6 Instalazio osagarrien abiarazte- eta gelditze-eragiketak egitea, aurreikusitako sekuentziari jarraituz eta elaborazio-prozesuaren barruan bete behar duten funtzioa kontuan hartuta.
- EI2.7 Zerbitzu osagarrien ekipamenduen kontrol- eta erregulazio-elementuak maneiatzea eta operatibitatea egiaztatzea.
- EI2.8 Zerbitzu osagarrien funtzionamendu anomaloak adieraz ditzaketen seinaleak ezagutzea (alarmak, soinu desegokiak, erritmo okerrak), horien arrazoiak identifikatzea, eta hartu beharreko neurriak ebaluatzea.

A3: Laneko higie- eta segurtasun-arauen eta larrialdi-arauen aplikazioa kontrolatzea haragi-produktuak eta -prestakinak lantzeko prozesuaren eragiketetan.

- EI3.1 Haragi-industrian ezarritako higie- eta segurtasun-arauak eta -neurriak ezagutzea eta interpretatzea.

- EI3.2 Lanpostuan, pertsonentzat eta materialentzat arriskutsuak izan daitezkeen ohiturak eta portaerak zuzentzea.
- EI3.3 Erregelamenduzko segurtasun- eta larrialdi-seinaleak eta -neurriak identifikatzea haragi-produktuak lantzeko linean edo instalazioan, leku egokietan kokatuak daudela egiaztatuz.
- EI3.4 Prozesuaren eragiketetan eta lanetan higie- eta segurtasun-arauak betetzen direla egiaztatzea, eta, hala badagokio, ikusitako anomaliak zuzentzea.
- EI3.5 Izan daitezkeen larrialdi-egoerak interpretatzea eta aurreikusitako erantzunak deskribatzea, gorabehera horientzat ezarritako baliabideak eta jardunak erabiliz.
- EI3.6 Kutsadura bidez hiltegi batean har daitezkeen lanbide-gaixotasun desberdinak ezagutzea, eta prebentzio-neurri egokienak identifikatzea eta aplikatzea.
- EI3.7 Laneko istripu bati buruzko ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauden kasu praktiko batean:
- Egin beharreko alarmak, abisuak eta laguntza-eskaerak ezagutzea.
 - Lehen laguntzak aplikatzea, ezarritako prozedurei jarraikiz.
 - Bidezkoa izanez gero, egin beharko liratekeen lekualdaketak zehaztea, baita forma eta baliabide egokiak ere.
 - Istripuaren txostena edo partea prestatzea, horretarako ezarritako argibideei jarraikiz.

A4: Haragi-industriako higie pertsonaleko arauak eta garbiketako, desinfekzioko, intsektu-garbiketako eta arratoi-garbiketako sistemak aplikatzea.

- EI4.1 Produktu- eta sistema-mota desberdinak erlazionatzea haragi-produktuak lantzeko prozesuetan desagerrarazi beharreko hondakinen berezko ezaugarriekin.
- EI4.2 Haragi-produktuak biltegitzeko eta prozesatzeko eremuen beharreko garbiketako, desinfekzioko, intsektu-garbiketako eta arratoi-garbiketako baldintzak identifikatzea.
- EI4.3 Ontziratze eta enbalajeko gunearen, ekipamenduen eta makinaren garbitasun-baldintzak ezartzea, ekipamendu osagarriak barnean hartuta.
- EI4.4 Haragi-produktuak lantzeko prozesu baten garapenaren behar bezala zehaztutako kasu praktiko batean:
- Garbiketa-produktuak eta aplikazio-sistema egokiena identifikatzea.
 - Garbiketa-plana ezartzea eta hori betetzeaz eta kontrolatzeaz arduratzea.
 - Haragi-industriaren instalazioetan eta eremuetan, desinfekzioko, intsektu-garbiketako eta arratoi-garbiketako planak zehaztea, izan daitezkeen infekzio-fokuak eta zikinkerriaren metatze-puntuak atzemanaz.
 - Higie pertsonaleko eta segurtasuneko neurri espezifikoak hartzea produktuaren manipulazioan eta makinaren eta ekipamenduen maneian.
 - Elaborazio-prozesuaren hasieran eta amaieran erabilutako ekipamenduen garbiketa eta desinfekzioa gainbegiratzea.
 - Instalazioen desinfekzioko, intsektu-garbiketako eta arratoi-garbiketako eragiketen egikaritzea gainbegiratzea.
- EI4.5 Araudiak instalazioentzat, ekipamenduentzat, eta haragi-produktuak eta -prestakinak lantzen edo manipulatu dituzten pertsonentzat ezartzen dituen higie-eskakizunak justifikatzea.
- EI4.6 Higie pertsonaleko eta orokorreko neurrien eraginkortasuna aztertze ikuskapen-jarraibideak ezartzea.

Edukiak:

1. Makinak eta ekipamenduak haragi-produktuen eta -prestakinen industrian.

- Animalien hiletan, prestaketan eta zatiketean erabiltzen diren makinak eta ekipamenduak. Deskribapena eta ezaugarriak.
- Hiltegi eta prestaketa- eta zatiketa-gelan maiz erabiltzen diren lanabesak eta elementuak. Maneia eta erabiltzean kontuan hartu beharrekoak.
 - Haragi-produktuak eta -prestakinak lantzeko makinak eta ekipamenduak. Deskribapena, funtzionamendua eta arriskuen prebentzioa.
 - Haragi-produktuen prestaketa- eta lantze-eragiketetan biltzen diren makinaren, lanabesen eta ekipamenduen oinarriko osaera.
- Haragi-produktuen prestaketako eta lantzeko ekipamenduen, makinaren eta osagarrien ohizko mantentze-lanak. Lehen mailako mantentze-lanen jarraipena eta kontrola.
- Funtzionamenduen kontrola. Lan-dokumentuen eta -argibideen jarraipena.
- Makinen eta ekipamenduen funtzionamenduan gerta daitezkeen akatsak eta anomaliak. Barne-konponbideak eta kanpoko zerbitzuak behar dituzten konponbideak.
- Haragi-produktuak lantzeko ekipamenduak aktibatzen eta erregulatzen dituzten eta horietan esku hartzen duten osagai elektronikoak.
- Makinen eta ekipamenduen erlazioa zerbitzu osagarriek ematen dituzten energia- eta ur-iturrietatik.
- Haragi-piezak eta -produktuak ontziratze, etiketatze eta paketatze makinak eta ekipamenduak. Ezaugarriak, funtzionamendua eta kontrola.

2. Instalazioak eta zerbitzu osagarriak haragi-industrian.

- Beroaren sorrera (ura eta lurrina). Erregaiak eta tangak. Instalazio-baldintzak. Maneian kontuan hartu beharrekoak. Lurrungaldarak.
- Ur beroa eta lurrina lantze-ekipamenduetara eroatea. Banaketaren kontrolak.
- Bero-trukagailuak. Funtzionamendua eta erabilera.
- Aire-produkzioa. Funtzionamendu pneumatikoak eta erabilera. Aire konprimatua produzitzeko konpresoreen oinarriak.

- Ur hotzaren tratamendua eta eroapena. Erabilera haragi-industrian.
- Potentzia mekanikoko produktzioa. Transmisio-kateak eta bestelako aplikazioak - Motor elektrikoak. Funtzionamendua eta instalazioak: Poleak, erreduktoreak, engranajeak, abiadura-aldagailuak, ardatzak.
- Hotza produzitzeko instalazioak. Oinarriak. Fluidoak, konpresoreak, lurrungailuak, kondentsadoreak, hozte-dorreak, balbulak...
- Hotzaren aplikazioak haragi-industrian. Ganberak eta tunelak. Kontrol-mekanismoak.
- Zerbitzu osagarriak eta horien aplikazioak prestaketa- eta zatiketa-eragiketetan, eta haragi-produktuak lantzeko prozesuetan. Ikuspegi orokorra eta alderdi partikularrak.
- Baliabide energetikoen eta hidrikoen optimizazioa. Arrazionalizazio- eta aurrezpen-neurriak.
- Segurtasun-neurriak eta -gailuak zerbitzu osagarrietan. Ekipamendu eta instalazio osagarrien banaketaren eta erregulazioaren identifikazioa.
- Zerbitzu osagarrien lehen mailako mantentze-lanak. Ezohiko funtzionamenduak detektatzea eta neurri zuzentzaileak ebaluatzea.

3. Laneko higieena eta segurtasuna haragi-produktuak lantzean.

- Higienari eta segurtasunari buruzko araudi orokorra elikagaien industrian.
- Haragi-industriarentzako araudi partikularra:
 - Lege-araudi horizontala eta bertikala.
 - Higieen-jardunbide egokien gidak haragi-produktuen prestaketan eta lantzean.
 - Higieen pertsonala: Jantziak, garbitasun pertsonala, objektu pertsonalak, lan-ohiturak.
- Arriskua dakarten portaerak eta egoera bereziak.
- Lan-guneen eta lan-eremuen ezaugarriak.
 - Azalerak: materialak eta eraikuntza.
 - Ibilbideak eta sarbideak.
 - Kolore adierazgarriak.
 - Instalazioen eta ekipamenduen banaketa espazioetan.
 - Aireztatzen, argizatzen, higieen-zerbitzuak.
 - Kanpoaldearekiko kontakturako guneak.
 - Isolamendu-elementuak, ebakuazio-gailuak.
- Erregelamenduzko segurtasun- eta larrialdi-seinaleak eta -neurriak haragi-produktuak lantzeko linean edo instalazioan.
- Larrialdiak eta erantzuteko esku-hartzeak.
- Lanbide-gaixotasun ohikoenak hiltegietan, zatiketa-geletan edo haragi-produktuak lantzeko instalazioetan. Prebentzio-neurriak.
- Istripuetarako jardunak. Lehen laguntza.
- Istripuen txostenak eta parteak lantzea.
- Lantokiaren eta instalazioen garbiketa orokorra. Argibideen eskuliburua.
- Hondakinak desagerraraztea. Ebakuazioa. Ingurumen-babesa.
- Desinfekzioko, intsektu-garbiketako eta arratoi-garbiketako planak: Produktuak eta materialak. Kanpoko laguntza

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Harakintza.